


Denboran atzerantz pausu bat

Jone, Alazne, Maialen, Asier, Naia eta Ibon gara, Uzturpe ikastolako (Ibarra) sei ikasle. Bidaiarien txokoak proposatzen duen bezala, Euskal Herrian bost eguneko bidaia burutu nahiko genuke. Bidaiarien txokoak eskaintzen duen aukera paregabea ikusi bezain laster, taldetxo bat elkartu eta segituan hasi ginen Euskal Herria arakatzen. Orduan ohartu ginen, zenbat gauza ezkututzen dituen gure Euskal Herri kuttunak. Horretaz gain, gure pentsaera batzuk aldatzea lortu duzue, ez kilometroak eta ez dirua ez dira bidai bat egiteko gauza garrantzitsuenak, ilusio eta gogoz amets handiak gauza txikiz lor daitezke.

Zugarramurdiko sorginek sorginkeria bat egin zieten orain dela 100 urte Euskal Herriko gazteei. Sorginkeria horren helburua gazteak abenturak bizitzeko gogoak kentzea zen. Baina urteen poderioz indarra galtzen joan da sorginkeria eta 100 urteren ostean 6 neska-mutuez osaturiko talde batek suntsitu egin nahi du behin betiko. Taldea Sarara abiatzen da eta bertan tren magikoan mendira igotzen dira, bertatik egin baitzuten sorginek sorginkeria, han goitik Euskal Herri osoa hanka azpian daukate eta. Saratik, beraiek nahi dutena lortzen ez dutela eta, nola ez, Zugarramurdiko sorginen bizilekura joaten dira, bertan pista gehiago aurkitzeko asmotan. Han, aurkitu dituzten pistek, Amaiurrera eraman dituzte. Amaiurren, dorre handi-handi bat dago, eta bertan sorginek bilera oso garrantzitsuak egiten zituzten, beraz Amaiurrera joaten dira pista bila. Horrela ibilbide luze bat egin beharko dute 5 egunetan zehar eta amaieran konturatuko dira Gaztelugatzen dagoela gakoa...



“Denboran atzerantz pausu bat” izena jarri diogu gure proiektuari. Euskal Herrian antzinatik datozen hainbat altxor ezkututzen dira eta guk horietako batzuk argitara ateratzeko asmoarekin egin nahi dugu bidai hau, horrela kondaira ere bizitzeko aukera daukagu. Euskal Herriak, lehen esan dugun bezala, hainbat altxor eta leku zoragarri ezkututzen dizkigu, bertan gure abenturak bizitzeko aukera dugula ikusita, zergatik ez disfrutatu altxor horiez modu original eta izugarri batean? Beraz, gure bidaia misteriotsuago eta erakargarriagoa egiteko antzinako erara bizi nahi dugu bost egun liluragarriez osatutako bidai hau. Gure aiton-amonon hitzetan agertutako hainbat leku interesgarri aukeratu ditugu, beraiek kontatutako istorio eta kondairak entzun ditugu lehenbizi, ondoren kondaira eta ipuinetako lekuei buruz informazioa bilatu dugu hainbat liburu, web eta entziklopediatan. Hau da, azkenean, geratu zaigun bidai zoragarria:



1.eguna:

Kondairaren ibilbidea jarraitzea da gure asmoa. Gure bidaia Tolosan hasiko litzateke, eta bertatik, Sararantz abiatuko ginateke, Tolosatik 1h-era dago, 66,1 km-tara. AP-8 tik zehar joan behar da. Ibilbide honetan bidesariak daude. Bertan, Larrun mendira igoko ginateke, bertan 1924.urtean eginiko tren batean igoko ginateke 905 metrotara, 35 minutuko bidaiatxoan. (Le Train de la Rhune webgunean informazioa interesgarri gehiago). Larrun menditik ikusten diren ikuspegi eta paisaiez gozatuko dugu eta Sarak eskaintzen dizkigun bitxikeriak aztertuko ditugu.



Zugarramurdira joango ginateke jarraian, Zugarramurdi, Saratik 15 minututara dago 7,1km-tara. Bertan lehenik sorginen kobetara joango ginateke, sorginen bizileku eta elkargunera, bertako sorginen bizimodua ikasteko eta beraiei buruzko bitxikeriak ezagutzeko, beraiek baitira gure kondairaren oinarri. Txikitatik hitz egiten digute sorginen inguruan, eta guztioi etortzen zaigu aurpegi berbera sorgin hitza entzutean, baina guk ez dakigunez deus, beraien ohitura eta bizitzari buruz, leku egokia iruditu zaigu, bisitan joateko. Sorginen bizileku eta elkargunea ezagutu ondoren, sorginei buruzko museo batera joango ginateke, Zugarramurdi bertan aurki dezakeguna. Leize handiak alderik zabalenean 120 metroko zabalera du. "Infernuko" Errekak leizea erdi-erditik zeharkatzen du. Urteen joanean, leizea industen joan da erreka; dagoeneko hamabi metroko garaiera eman dio harpeari. Leize Handia hainbat tokitatik ikus daiteke, behetik edo goitik, eta goitik begiratzean koloredun argiek efektu bereziak sortzen dituzte harrietan. Gauean, izarrei begira egunean zehar egin duguna gogoratuko dugu gitarraren soinu goxoak lagunduz.



Sara: 18€ bakoitza, denera 144€

Zugarramurdi: Kobazuloak 4€ bakoitza, denera 32€

Sorginen museoa 4.5€ bakoitza, denera 36€

Guztira: 182€



2.eguna:

Goizean goizetik abiatuko ginateke Zugarramurditik, Amaiurrera, bertan Amaiur herria ezagutzea gustatuko litzaiguke. Amaiur Euskal Herriko sinbolo denez, aukera paregabea iruditu zaigu herria bera eta bertako dorrea ezagutzea. Oso aztarnategi aberatsa da, XIII. mendean gazteluaren lehen harriak ezarri eta gaur egun arterainoko informazioa eskaintzen bai digu. Amaiurtik Orreagara joango ginateke, Orreagako Gudua ere garrantzitsua izan da Euskal Herriko historian. Baina gutako inor ez gara inoiz bertara joan, eta ezagutzeko interesa dugu. Bertatik, frantses ibilbidearen hasierara joango ginateke, eta Orreagako haitzartera joan nahiko genuke.



Amaiur: 0€

Orreaga: 0€

Guztira: Egun honetan ez dugu gasturik izango.

3.eguna:

Hirugarren egunean Orreagatik Iturenera joango ginateke eta jarraian Zubietara. Bertan denok ezagutzen ditugun jai ospetsuen garrantzia aztertuko genuke, hau da, Inauterien garrantzia inguru horietan. Honez gain, Zubietan errota museo zahar bat ikusi ahalko genuke. Jarraian Iturenera joango ginateke, eta bertan Javier izena duen gizon batekin egongo ginateke, bera herriko zinegotzia da eta herriaren inguruan asko daki, gainera, Iturengo Inauteriak biziki bizitzen ditu, bera joaldun bat eta prest dago gurekin arratsalde bat pasatzeko, bertako inauterien inguruan hitz egiteko.



baita,


Ituren: 0€

Zubieta: 3€ bakoitzak, denera 24€

Guztira: 24€

4.eguna:

Laugarren egunean goizean goiz Zubietatik Anbotora joango ginateke, parke naturaleko bidetik egingo genuke igoera, ez Atxondotik, zailagoa bai da. Hala ere abentura bila gatoz eta Anboton Mariren kobara igoko ginateke, bere haizulo eta etxea ezagutzera. Marik garrantzi handia izan du gure mitologiaren historian eta ezin dugu bere bizilekua ezagutu gabe bidaia hau amaitu! Gainera, Atxondoko udaletxekoekin harremanetan jarri gara, eta bertako kide batekin hitz egin dugu, berak Anbotoko bideari buruzko hainbat mapa oparitu dizkigu, baita bertako informazio gehiago ere. Anboton goiza pasa ondoren, Mungia joango ginateke, Mariren etxea ezagutu eta ez gara Olentzerori bisita egin gabe geratuko! Olentzeroren etxea ezagutu eta denbora geratu ez gero Mungia herria bera ikusiko genuke, herri oso bitxia baita.



Anboto: 0€

Olentzeroren etxea (Mungia): 9,80€ bakoitza, guztira 78,4€

Guztira: 78.4€

5.eguna:

Azkeneko eguna izanik, nola ez, Gaztelugatxera abiatuko ginen gure gogo guztiekin. Gaztelugatxen bukatzen dela kondaira esan dugu lehen... Beraz bidaia egiteko aukera ematen badiguzue, jakingo duzue gure kondaira nola amaitzen den! Gaztelugatxen eskailera guztiak igo, 231 hain zuzen, oinez ibili eta kanpaiak joko ditugu bertan, ondoren bazkaldu egingo dugu, bitartean, gure kondairaz eta bidaiaz hitz egin eta bidaiako momentu guztiak gogora ekarriko ditugu. Bidaia guztiek amaiera bat dute, eta Gaztelugatxen, emango genioke amaiera geure bidaiari, furgoneta hartu eta Tolosara bueltatuko ginateke bidai zoragarri eta misterioitsu honetaz gozatu ondoren.



Gaztelugatxe: 0€

Guztira: Ez dugu dirurik gastatuko.

Azken finean, bidaia hau prestatzen gogo izugarria jarri dugu, eta ilusioz beterik gaude, gure gurasoek esaten duten bezala, ez da inoiz errenditu behar eta gure bidaia betetzen saiatuko gara. Bidaia betetzeko esperantzak ditugu, horrelako aukerak ez dira egunero edukitzen eta plazer bat izango zen guretzat guk prestatutako bidaia hau zuekin bete ahal izatea. Bidaia guztia prestatzeko gauza asko lotu behar izan ditugu, leku, herri eta pertsona guztiekin hitz egin dugu ongi informatu ahal izateko eta bidaian zehar arazorik ez izateko. Gainera, zuei esker badakigu zer egin, gogoia, diru gutxi eta kilometro gutxirekin esperientzia paregabe bat bizitu Euskal Herri osoan zehar!!!

PREZIOAK:

Ekintzak: 284.4€

Janaria: 115€

Ibilbidea (Gasolina eta bide sariak): 100€

KILOMETROAK:

Tolosatik, Sarara-----66,1km
Saratik, Zugarramurdira-----7,1km
Zugarramurditik, Amaurrera----19.7km
Amaurretik, Orreagara-----70,9km
Orreagatik, Iturenena-----88,2km
Iturenetik, Zubietara-----3,6km
Zubietatik, Anbotora-----142km
Anbototik, Mungiara-----53,6km
Mungiatik, Gaztelugatxera-----18,1km
Gaztelugatxetik, Tolosara-----116km